

# 14

## INGURUMENA

---

### MEDIO AMBIENTE

**Iñaki Arto Olaizola (\*)**  
**Xabier González Vegas (\*\*)**

---

(\*) **Ekonomia Publikoko Institutua. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ingurumen Ekonomiaren Ataleko irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitatea.**

Instituto de Economía Pública. Profesor de la Unidad de Economía Ambiental de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales. Universidad del País Vasco.

(\*\*) **Tokiko iraunkortasuneko proiektuen arduraduna. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. IHOBE.**  
Responsable de proyectos de sostenibilidad local. Sociedad Pública de Gestión Ambiental. IHOBE.

## ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. POLÍTICA AMBIENTAL EN EUROPA Y EN LA C.A. DE EUSKADI
  - 2.1. La política ambiental en la Unión Europea
  - 2.2. La política ambiental en la C.A. de Euskadi
3. EVOLUCIÓN DE LA SITUACIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LA C.A. DE EUSKADI
  - 3.1. Consumo de recursos naturales
    - 3.1.1. Agua
    - 3.1.2. Energía
    - 3.1.3. Materiales
    - 3.1.4. Suelo
  - 3.2. Calidad ambiental y contaminación
    - 3.2.1. Calidad de las aguas
    - 3.2.2. Calidad del aire
    - 3.2.3. Emisiones de gases de efecto invernadero
    - 3.2.4. Generación de residuos
    - 3.2.5. Recuperación de suelos contaminados
  - 3.3. Biodiversidad y paisaje
    - 3.3.1. Especies amenazadas
    - 3.3.2. Paisaje
  - 3.4. Gestión ambiental
    - 3.4.1. Gasto e inversión públicos en medio ambiente
    - 3.4.2. Sistemas de gestión ambiental en empresas
    - 3.4.3. Gestión ambiental en el sector agroforestal
    - 3.4.4. Gestión de residuos
    - 3.4.5. Conservación de la biodiversidad y el paisaje
4. CONCLUSIONES
5. BIBLIOGRAFÍA

## AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. INGURUMEN POLITIKA EUROPAN ETA EUSKAL AEn
  - 2.1. Europako Batasuneko ingurumen politika
  - 2.2. Ingurumen politika Euskal AEn
3. EUSKAL AEko INGURUMEN EGOERA: BILAKAERA
  - 3.1. Baliabide naturalen kontsumoa
    - 3.1.1. Ura
    - 3.1.2. Energia
    - 3.1.3. Materialak
    - 3.1.4. Lurra
  - 3.2. Ingurumenaren kalitatea eta kutsadura
    - 3.2.1. Uren kalitatea
    - 3.2.2. Airearen kalitatea
    - 3.2.3. Berotegi efektua eragiten duten gasen igorpenak
    - 3.2.4. Hondakinak
    - 3.2.5. Lur kutsatuen lehengoratzea
  - 3.3. Bioaniztasuna eta paisaia
    - 3.3.1. Arriskupeko espezieak
    - 3.3.2. Paisaia
  - 3.4. Ingurumen kudeaketa
    - 3.4.1. Gastu eta inbertsio publikoak ingurumenean
    - 3.4.2. Enpresetako ingurumen kudeaketarako sistemak
    - 3.4.3. Ingurumen kudeaketa nekazaritza-basogintza alorrean
    - 3.4.4. Hondakinen kudeaketa
    - 3.4.5. Bioaniztasuna eta paisaia zaindu
4. ONDORIOAK
5. BIBLIOGRAFIA

## 1. INTRODUCCIÓN

La realidad de nuestro planeta se ve cada vez más condicionada por el estado del medio ambiente global. En los últimos tiempos, las preocupaciones sobre la lucha contra un cambio climático difícilmente reversible y científicamente demostrado, la cada vez más evidente pérdida de biodiversidad, las dudas sobre la sostenibilidad de los modelos energéticos y de producción y consumo, etc., han pasado a formar parte de la lista de los principales retos a los que se enfrenta la Humanidad. La sociedad vasca no ha permanecido indiferente a estas circunstancias y muestra un cada vez mayor nivel de sensibilización ante estos problemas. No en vano el Ecobarómetro Social de la C.A. de Euskadi del año 2004 (IHOBE, 2004a) señala cómo un 86% de la población vasca se muestra muy o bastante preocupada por los problemas ambientales (78% en 2001).

Esta situación ha calado en una clase política cada vez más consciente de la urgencia de diseñar estrategias y acciones que ayuden a abordar con garantías los grandes retos ambientales a que nos enfrentamos. Desde el año 2000, fecha de publicación del último *Panorama Social de la C.A. de Euskadi*, se han dado avances significativos en el diseño y puesta en marcha de políticas públicas y actuaciones privadas que persiguen aumentar las cotas de sostenibilidad del entorno y del país en el que vivimos. Como veremos a continuación estos progresos se han dado a todos los niveles: internacional, europeo, autonómico, foral y municipal.

En el contexto internacional, la Cumbre Mundial sobre el Desarrollo Sostenible celebrada en 2002 en Johannesburgo y la aprobación de la Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible (Comisión Europea, 2001) y del VI Programa Comunitario de Acción en materia de Medio Ambiente 2001-2010 (Comisión Europea, 2002a), han supuesto hitos muy importantes en la orientación de las políticas y los esfuerzos por la mejora ambiental continua y el desarrollo sostenible. En un contexto más cercano, la aprobación en el año 2002 de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 (Gobierno Vasco), ha supuesto un verdadero punto de inflexión en la definición, articulación, e implantación de planes y programas tendentes a mejorar la calidad de vida de nuestro entorno, tanto para la generación presente como para las futuras.

Este capítulo pretende ofrecer de manera sintética un marco de referencia conceptual y un resumen de los principales datos ambientales de la C.A. de Euskadi. Para ello nos centraremos en primera instancia en presentar las claves de la política ambiental tanto europea como vasca, para seguidamente ofrecer un análisis general de la evolución de la situación ambiental de la C.A. de Euskadi.

## 1. SARRERA

Ingurumenak, oro har hartua, gero eta eragin zuzenagoa du planetaren egoeran. Aspaldi honetan gizendu da gizakiok aurre egin beharreko arazo larrien zerrenda: kezkatuta gauzka klimaren aldaketak, zientziak sobera frogatuak eta nekez itzulgarriak; bioaniztasunak ezin ezkutuzko galera jasaten du, eta ez dakigu zenbateraino den iraunkorra energian, ekoizpenean eta kontsumoan darabilgun ereduak... Euskal gizartean haziz doa arazo horiekiko ardura, eta hala jaso du Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekobarometroak (IHOBE, 2004a), 2004ko datuen arabera Euskadiko biztanleen %86 (%78 2001ean) nahiko edo oso kezkatuik baitzeuden ingurumen arazoez.

Egoeraren tamainaz jabeturik, politikariek ere lehen baino argiago ikusten dute beharrezkoa dela estrategia eta ekintza multzo bat zehaztea, gainean dauzkagun ingurumen premiei eutsiko bazaie. Azken *Euskal Autonomia Erkidegoko Gizartearen Ikuspegia* plazaratu zenetik, 2000tik, asko aurreratu da gai honetan, alor publiko zein pribatutik hainbat politika eta ekintza diseinatu eta abiarazi baitira ingurune eta, azken batean, herri iraunkorrago bat lortzeko. Geroago ikusiko denez, maila guztietan izan dira aurrerapausoak, hala mundu mailan nola Europan, Erkidegoan, Herrialde Historikoetan eta udal-aldetik ere.

Nazioartean, gertaera esanguratsuenetako bat izan da 2002ko Garapen Iraunkorrari buruzko Mundu Gailurra, Johannesburgen egina, bertan jarduteko lerroak markatu zitzaizkielako ingurumena etengabe hobetzeko eta garapen iraunkorra bultzatzeko ahaleginei eta politikei, eta beste horrenbeste esan daiteke Europako Batasunak onartutako Garapen Iraunkorrerako Estrategiaz (Europako Batzordea, 2001) eta Erkidegoaren Ingurumen Ekintzarako VI. Programaz (Europako Batzordea, 2002a). Gurean aipagarri, 2002an onetsia eman zitzaion Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategia 2002-2020ri (Eusko Jaurlaritzan); Euskal Estrategiari esker, irizpide berriak dauzkagu, oraingo eta geroko belaunaldiei begira, bizi kalitatea zainduko duten planak eta programak taxutzeko, antolatuzko eta gauzatzeko.

Kapitulu honetan, oinarritzko kontzeptu multzo bat aurkezteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen datu adierazgarrienak laburbilduko ditugu. Zeregin horretan, lehenik aztertuko dugu zein diren, Europan eta Euskadin, ingurumen politikaren lerro nagusiak, baita ondoren azalduko ere zein den Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren egoera.

## 2. POLÍTICA AMBIENTAL EN EUROPA Y EN LA C.A. DE EUSKADI

Actualmente, estamos en condiciones de afirmar que los procesos de diseño y puesta en marcha de políticas ambientales y de sostenibilidad en la Unión Europea y en la C.A. de Euskadi guardan una importante coordinación y sincronía. Ambas políticas persiguen, desde la innovación y el liderazgo institucional, promover e incentivar la adopción de medidas y planes por parte del conjunto de la sociedad que permitan avanzar hacia un modelo de sociedad sostenible.

### 2.1. La política ambiental en la Unión Europea

La Unión Europea siempre ha considerado las cuestiones ambientales temas prioritarios en su agenda política. En gran parte de los principales textos aprobados por la Unión Europea podemos encontrar referencias claras y explícitas sobre su preocupación por la protección del medio ambiente.

A modo de ejemplo, en los artículos 2 y 3 del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea (Comisión Europea, 2002b) se establece entre las misiones de la Comunidad «promover (...) un desarrollo armonioso, equilibrado y sostenible de las actividades económicas» y «un alto nivel de protección y de mejora de la calidad ambiental». Estos objetivos son posteriormente desarrollados en el Título XIX del mismo tratado, dedicado íntegramente al medio ambiente.

En la UE hay dos acontecimientos especialmente relevantes en materia ambiental. El primero es la aprobación de la Estrategia de la Unión Europea para un desarrollo sostenible (EEDS), aprobada en la Cumbre de Gotemburgo en junio de 2001. En segundo lugar, se encuentra la aprobación, en el año 2002, del Sexto Programa de Acción de la Comunidad Europea en materia de medio ambiente, bajo el título de «Medio ambiente 2010: el futuro está en nuestras manos».

La EEDS establece cinco condiciones a cumplir para avanzar hacia el desarrollo sostenible:

1. Mejorar la coherencia de la actuación política.
2. Fijar precios reales que constituyan una señal para las personas y las empresas.
3. Inversiones de futuro en ciencia y tecnología.
4. Mejorar la comunicación y movilizar a ciudadanos y empresas.
5. Tener en cuenta la ampliación y la dimensión mundial.

Asimismo, marca una serie de objetivos y metas prioritarios para la acción en distintos ámbitos, integrando las variables de crecimiento económico, cohesión social y protección del medio ambiente. La Estrategia constituye un documento marco que prevé su desarrollo a través de distintas políticas temáticas posteriores, así como los mecanismos de seguimiento y control de los avances conseguidos cada año. Los objetivos y metas establecidos a largo plazo son:

## 2. INGURUMEN POLITIKA EUROPAN ETA EUSKAL AEn

Gaur egun esan daiteke Europako Batasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoak nahiko koordinatuta eta sinkronizatuta dihardutela ingurumen eta iraunkortasunerako politikak zehaztu eta gauzatzeko prozesuetan. Eredu bateko zein beste instituzioek bultzatzen dituzten politika berritzaile horien helburua da gizarteak bere egin eta martxan jar ditzan iraunkortasun eredu baterantz jotzen duten neurriak eta egitasmoak.

### 2.1. Europako Batasuneko ingurumen politika

Europako Batasunak beti lehenetsi ditu ingurumen alorreko gaiak bere agenda politikoan, eta ardura horren froga, Batasunak onartutako testu nagusietako askotan berariazko aipamen argiak egiten dira ingurumena babestu beharraz.

Adibidez, Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren 2. eta 3. artikuluetan (Europako Batzordea, 2002b) ondoko hauek ageri dira Erkidegoak sustatu beharrekoen artean: «ekonomia-jardueren garapen harmoniatu, orekatu eta iraunkorra» eta «ingurumenaren kalitatearen babesa eta hobekuntza, maila handian». Helburu horiek xeheago ukitzen dira Itunaren XIX. Tituluan, atal horrek gai bakarra baitu: ingurumena.

EBko bi gertaerak berebiziko garrantzia dute ingurumenaren alorrean. Lehenean, 2001eko ekainean, Garapen Iraunkorrerako Europako Batasuneko Estrategia (GIEBE) onetsita geratu zen, Gotenburgeko Gailurrean, eta ondoren, 2002an, onetsia eman zitzaion Europako Erkidegoaren Ingurumen Ekintzarako VI. Programari, honako izen hau jarrita: «Ingurumena 2010: etorkizuna gure esku dago».

GIEBEren arabera, garapen iraunkorrerako bidean bost egin-kizun bete behar dira:

1. Ekimen politikoak koherenteagoak izan daitezten lortzea.
2. Benetako prezioak jartzea, norbanakoek eta enpresek erreferentzia bat izan dezaten.
3. Zientzian eta teknologian inbertitzea, etorkizunera begira.
4. Komunikazioa hobetzea eta herritarrek zein enpresak mobilizatzea.
5. Europako Batasunaren zabaltzea eta mundu mailako esparrua kontuan edukitzea.

Horrez gain, arlokako helburuak eta zereginak ere zehazten dira, guztietan ekonomi hazkuntza, gizarte kohesioa eta ingurumenaren babesa aldagai hartuta. Estrategia erreferentziazko txosten bat da, arlokako politiken bidez garatzekoa, eta bertan ere jasota dago nola egingo den urte bakoitzeko lorpenen jarraipena. Epe luzera, eginkizun hauek planteatu dira:

1. Necesidad de actuar en una amplia gama de políticas.
2. Limitar el cambio climático e incrementar el uso de energías limpias.
3. Responder a las amenazas a la salud pública.
4. Gestión responsable de los recursos naturales.
5. Mejorar el sistema de transportes y la ordenación territorial.

El Sexto Programa de Acción de la Comunidad Europea en materia de medio ambiente, nace con el objetivo de definir las prioridades y objetivos de la política medioambiental de la Comunidad hasta y después de 2010 y detallar las medidas a adoptar para contribuir a la aplicación de la EEDS. La adopción del Sexto Programa marca una diferencia con los cinco anteriores, ya que es el primero de ellos que se aprueba como decisión, es decir, posee rango de ley y va más allá de una recomendación pasando a ser de obligado cumplimiento. El Sexto Programa se centra en las cuatro prioridades clave que en materia de medio ambiente debe abordar la Comunidad:

1. Cambio climático y calentamiento del planeta.
2. Hábitat natural y fauna.
3. Cuestiones medioambientales y sanitarias.
4. Recursos naturales y gestión de los residuos.

El programa también establece los principales medios a utilizar para alcanzar los objetivos y metas propuestos:

- Cumplimiento de la legislación ambiental vigente.
- Integración del medio ambiente en todas las políticas pertinentes de la UE: participación estrecha de las empresas y los consumidores en la búsqueda de soluciones a problemas ambientales.
- Suministro a la población de la información necesaria para tomar decisiones respetuosas con el medio ambiente.
- Concienciación de la importancia de utilizar el suelo razonablemente para preservar los hábitats y paisajes naturales y reducir al mínimo la contaminación urbana.

Una de las principales innovaciones en la aplicación de políticas derivadas del Sexto Programa es la definición e implantación de Estrategias Temáticas, definidas como herramientas para tratar desde una perspectiva transdisciplinar e integrada las cuestiones medioambientales consideradas prioritarias. Así, en este momento se encuentran en desarrollo las siete estrategias temáticas previstas:

1. Calidad del aire.
2. Protección del suelo.
3. Uso de plaguicidas.
4. Medio ambiente marino.

1. Politikak ugaltzea.
2. Klima aldaketa apaltzea eta energia garbiak gehiago erabiltzea.
3. Osasun publikorako arriskuei aurre egitea.
4. Baliabide naturalak zentzuz kudeatzea.
5. Garraio sistema eta lurralde antolamendua hobetzea.

Europako Erkidegoko Ingurumen Ekintzetarako VI. Programarekin finkatu nahi izan dira Erkidegoak ingurumen alorrean izango dituen lehentasunak eta helburuak –2010era arte eta gero-rako ere bai– eta zein neurri hartu beharko diren GIEBE gauzatzen laguntzeko. Seigarren Programak bereizgarri bat dauka aurreko bosten aldean, azken hau erabaki gisa onartu zelako, hots, lege maila duenez ez da gomendio hutsa, derri-gorreko betekizuna baizik. Programak lau puntu lehenesten ditu Erkidegoak ingurumen alorrean bete beharrekoen artean:

1. Klima aldaketa eta planetaren berotzea.
2. Habitat naturalak eta fauna.
3. Ingurumen eta osasun gaiak.
4. Baliabide naturalak eta hondakinen kudeaketa.

Xedek ez ezik, Programak horretarako tresna nagusiak ere aurkezten ditu:

- Indarrean dagoen ingurumen legediari eustea.
- Hala egoki jotzen denean, ingurumen gaia EBren politike-tan txertatzea: enpresak eta kontsumitzaileak ere aritzea ingurumen arazoan konponbide bila.
- Herritarrei behar den informazioa ematea, ingurumenarekin arduratsu joka dezaten.
- Lurzorua zentzuz erabili beharra jendarteratzea, habitat eta paisaia naturalak babesteko eta hiri kutsadura albait gehien murrizteko.

Seigarren Programak, bestalde, berrikuntza garrantzitsu bat dakar, Gaikako Estrategiak planteatzen baititu bere politikak taxutzeko eta aplikatzeko tresna gisa. Estrategia horien bitartez, lehentasunezko zat jotzen diren ingurumen gaiei ikuspegi interdisciplinario eta osotasuneko batetik helduko zaie. Egun, aurreikusita zeuden zazpi gaietatik zeinek bere estrategia du garatze bidean:

1. Airearen kalitatea.
2. Lurzoruen babesa.
3. Pestiziden erabilera.
4. Itsas ingurumena.

5. Prevención y reciclado de residuos.
6. Uso sostenible de los recursos naturales.
7. Medio ambiente urbano.

La aprobación de la EEDS y el Sexto Programa supone un punto de inflexión en la política ambiental en la Unión Europea que ha pasado de un enfoque reactivo, orientado al establecimiento de un sistema global de controles ambientales, a adoptar una visión más proactiva, en la que juegan un papel esencial nuevas medidas, de mayor calado, que persiguen integrar la dimensión ambiental en otras políticas sectoriales.

## 2.2. La política ambiental en la C.A. de Euskadi

La Ley 3/1998 General de Protección del Medio Ambiente representa el inicio de una nueva etapa en la política ambiental vasca. Esta Ley nace con un triple objetivo:

1. Establecer el marco normativo de protección del medio ambiente, determinando los derechos y deberes de las personas físicas y jurídicas.
2. Garantizar un uso sostenible del aire, el agua, el suelo, el paisaje, la flora y la fauna.
3. Determinar los derechos y obligaciones individuales y colectivos generados por el medio ambiente como bien social.

Para ello, además de fijar el régimen de protección de los recursos ambientales y regular la intervención administrativa respecto de las actividades con incidencia en el medio ambiente (incluyendo un régimen sancionador), la ley proporciona nuevas fórmulas para abordar a corto, medio y largo plazo la protección ambiental en la sociedad desde la perspectiva del desarrollo sostenible. En concreto, el artículo 6 establece que la política ambiental vasca se plasmará en un Programa Marco Ambiental que tendrá cuatro años de duración y será aprobado por el Gobierno. Siguiendo el camino marcado por la Ley 3/98, el 4 de junio de 2002 el Consejo de Gobierno aprobó la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 (EAVDS) y el Programa Marco Ambiental 2002-2006 (PMA).

La EAVDS establece los objetivos y compromisos medioambientales a alcanzar en la C.A. de Euskadi a largo plazo (2020), compartiendo horizonte temporal con la Estrategia europea. El objetivo de la EAVDS no es otro que el de marcar unas líneas coordinadas y compartidas en materia de política ambiental, que den soporte y seguridad a las acciones realizadas por las entidades públicas, empresas y demás agentes socioeconómicos. En el corto plazo, de acuerdo a lo establecido en el Artículo 6 de la Ley 3/98, los compromisos de la política ambiental de la C.A. de Euskadi quedan plasmados en el denominado Programa Marco Ambiental. Dicho programa marco servirá para ajustar periódicamente los compromisos y objetivos recogidos inicialmente en la Estrategia. En la actualidad se está cerrando la valoración del primer PMA 2002-2006 y se está diseñando el nuevo programa para el periodo 2007-2010.

5. Hondakinen prebentzioa eta haien birziklatzea.
6. Baliabide naturalak haien iraunkortasuna kontuan harturik erabiltzea.
7. Hirialdeetako ingurumena.

GIEBE eta Seigarren Programa onartzeak aldaketak eragin ditu Europako Batasuneko ingurumen politikan, erreakzio hutsetatik aurrea hartzera pasatu baita, alegia, ingurumenaren kontrol sare baten ordeaz alorreko politikak neurri sendo eta sakonak edukiko ditu oinarri, eta beste sektore batzuetako politikekin uztartuko da.

## 2.2. Ingurumen politika Euskal AEn

3/1998 Lege Orokorra, Ingurumena Babestekoa, Euskadiko ingurumen politika berriaren abiapuntua da. Legea hiru helbururekin egin zen:

1. Esparru arauak edukitzea ingurumenaren babeserako, pertsona fisiko zein juridikoen eskubideak eta betebeharrak ezarritik.
2. Aire, ura, lurra, ingurua, landaredia eta fauna haien iraunkortasuna bermatuz erabiltzea.
3. Ingurumena gizarte ondasun bat den aldetik, norbanakoei zein kolektiboek alor honetan dituzten eskubideak eta beharrak zehaztea.

Legeak, bada, araubide bat sortu du ingurumen baliabideak babesteko eta administrazioak ingurumenean eragina duten jardueretan esku har dezan, zehapen araubide eta guzti, baina horretaz gain, ingurumena zaintzeko tresnak eskaintzen ditu epe labur, ertain eta luzerako, beti garapen iraunkorra gogoan. Zehazki, Legeak aurreikusten du, 6. artikuluan, Jaur-laritzak Euskadiko ingurumen politika onartuko duela lau urteko iraupena izango duen Esparru Programa baten bidez. Hala, 3/98 Legeak ezarritako ildotik, 2002ko ekainaren 4an Gobernu Kontseiluak onetsia eman zien GIEEri (Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategia 2002-2002) eta IEPri (Ingurumenerako Esparru Programa 2002-2006).

GIEEn jasota dago zein diren Euskal Autonomia Erkidegoaren helburuak eta egitekoak ingurumen alorrean eta epe luzera, hots, Europako Estrategiaren denbora muga berarekin (2020). GIEEek xede nagusi du lerro koordinatu eta komun batzuk ematea ingurumen politikarako, bai erakunde publikoak baita enpresak eta gainerako eragile sozioekonomikoak ere zeri heldu dakitelarik aritu daitezzen beren ekinean. 3/98 Legeak 6. artikuluan azaldu bezala, Esparru Programak zehazten du zein diren Euskal Autonomia Erkidegoaren epe laburrerako konpromisoak ingurumen arloan. Esparru Programari esker, Estrategian ageri diren hasierako egitekoak eta helburuak egokituz joango dira aldizka. Orain, lehen IEPren 2002-2006 ebaluazioa bukatzekotan dagoela, 2007-2010 tarterako programa zehazten ari da.

La EAVDS fija cinco metas ambientales a largo plazo que constituyen los estados deseados para el año 2020. Estas cinco metas son:

1. *Garantizar un aire, agua y suelos limpios y saludables.* Bajo esta meta se recogen cinco temas ambientales prioritarios: la emisión de productos químicos, el medio ambiente urbano, las aguas continentales, los riesgos naturales y tecnológicos y los suelos contaminados.
2. *Gestión responsable de los recursos naturales y de los residuos.* Los compromisos recogidos bajo esta meta están relacionados con el consumo sostenible de recursos naturales (materiales, energía, agua y suelo), la prevención en la generación de residuos y, en su caso, su correcta gestión.
3. *Protección de la naturaleza y la biodiversidad: un valor único a potenciar.* Se pretende conservar la biodiversidad y hacer un uso sostenible de los sistemas naturales, así como preservar la variedad de paisajes, entendiendo todo ello como elemento fundamental del entorno urbano, expresión de la diversidad del patrimonio común natural y cultural que condicionan la identidad de cada territorio.
4. *Equilibrio territorial y movilidad: un enfoque común.* Se persigue consolidar un territorio más equilibrado y accesible que permita la viabilidad de las actividades sociales y económicas de interés general a la vez que conserve el patrimonio, variedad, riqueza y atractivo natural y cultural de las áreas rurales, urbanas y costeras.
5. *Limitar la influencia en el cambio climático.* Es necesario tomar medidas para contribuir a alcanzar los objetivos fijados por la comunidad internacional en el Protocolo de Kyoto. Por ello se persigue alcanzar en la C.A. de Euskadi unos niveles de emisiones de gases de efecto invernadero sostenibles.

Para cada una de estas cinco metas se ha establecido una serie de objetivos y compromisos, así como unos plazos para su cumplimiento. En total se han incluido 223 compromisos: 141 programáticos asociados a una actuación concreta (de los cuales 134 vencen en 2006) y 82 compromisos cuantitativos asociados a un objetivo numérico (44 con vencimiento a 2006). Está previsto asumir nuevos compromisos en las sucesivas actualizaciones de la EAVDS.

Para la consecución de las metas propuestas en la Estrategia se ha considerado necesario reforzar algunos temas transversales y cumplir una serie de condiciones necesarias para avanzar hacia la sostenibilidad:

1. Integrar la variable ambiental en otras políticas.
2. Mejorar la legislación vigente y su aplicación.
3. Incitar al mercado a actuar a favor del medio ambiente.
4. Capacitar y corresponsabilizar a la ciudadanía, Administración y empresas y modificar sus comportamientos hacia una mayor sostenibilidad.
5. Potenciar la Investigación, Desarrollo Tecnológico e Innovación en materia medioambiental.

Ondoko bost helburu hauek, GIEEk 2020rako jarriek, urte horretarako lortu nahi litzatekeen ingurumen egoera adierazten dute:

1. *Aire, ur eta lur garbi eta osasuntsuak bermatzea.* Horrela izan dadin, lehentasuna eman behar zaie bost alderdi hauei: gai kimikoen igortzea, hirialdeko ingurumena, ur kontinentalak, arrisku naturalak eta teknologiatik eratorriak eta lur kutsatuak.
2. *Baliabide naturalak eta hondakinak zentzuz kudeatzea.* Helburu honetarako beharrezkoa da baliabide naturalak (materialak, energia, ura eta lurra) haien iraunkortasuna bermatuz kontsumitzea, hondakinik sortuko ote den aurreikustea eta, hala bada, hondakinak behar bezala tratatzea.
3. *Natura eta bioaniztasuna: zaindu eta sendoagotzeko ondare paregabea.* Bioaniztasuna zaindu behar da, sistema naturalak neurritz erabili eta paisaiak beren horretan gorde. Elementu horiek, hirialdearen funtsezko osagaiak, guztiona den ondare naturala eta kulturalaren adierazgarri dira, eta lurralde bakoitzeko berezitasuna moldatzen dute.
4. *Lurraldeen arteko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komun baten beharra.* Orekatuagoa eta ibilgarriagoa den lurralde bat eratuz gero, bideragarriagoak lirateke interes orokorreko gizarte eta ekonomi jarduerak, eta errazagoa landa, hiri nahiz kostaldeak beren naturaren eta kulturaren ondare askotariko eta erakargarriari eustea.
5. *Klima aldaketaren ondorioak arintzea.* Nazioarteak Kioto-ko Protokoloan adostutako akordioak neurri zehatzekin gauzatzen lagunduz. Bide horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan maila jasangarriagoraino murriztu beharko litzateke berotegi efektua sortzen duten gasen igorpena.

Goiko helburuetako bakoitzerako bide gisa, zeregin edo konpromiso multzo bat egokitu da, baita tarteko helburu horiek betetzeko epe batzuk jarri ere. Guztira 223 konpromiso dira: 141 programatikoak dira, eta ekintza zehatz banari lotuak daude (haietako 134k 2006an dute epemuga); beste 82ak kuantitatiboak dira, zenbakizko helburu bat dagokielako (haietako 44k 2006an dute epemuga). GIEE eguneratu ahal-litzateke berotegi efektua sortzen duten gasen igorpena.

Estrategian aurreikusten diren helburuak lortzeko, zeharkako gai batzuk indartu egin beharko dira, eta horrekin bat iraunkortasunerako baldintzak bete:

1. Ingurumena beste politika batzuetako aldagai bilakatzea.
2. Indarrean dagoen legedia eta haren aplikazioa hobetzea.
3. Merkatuak ingurumenaren alde joko dezan bultzatzea.
4. Prozesurako gaitasuna eta ardura herritarrengana eta Administrazio eta enpresei zabaltzea, beren jokaerarekin iraunkortasunean lagundu dezaten.
5. Ingurumen arloko ikerkuntza, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea.

	Hasi gabeak No iniciados	Hasitakoak Iniciados	Aurreratuak Avanzados	Burutuak Realizados	Guztira Total
<b>Konpromiso programatikoak</b> Compromisos programáticos	10	15	44	65	<b>134</b>

	Zailak Difícil	Egingarriak Probable	Eginerrazak Factible	Ez dago daturik Datos no disponibles	Guztira Total
<b>Zenbakizko konpromisoak</b> Compromisos cuantitativos	6	13	23	2	<b>44</b>

**Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila**

Fuente: Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco

Asimismo, la propia Estrategia también establece un sistema de control y seguimiento de la evolución de su cumplimiento. En este sentido, el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio elabora anualmente dos documentos: los indicadores ambientales y el informe de sostenibilidad ambiental. En el primero de estos documentos analiza la evolución de las principales variables ambientales a través de 22 indicadores. El informe de sostenibilidad, por su parte, realiza un seguimiento del grado de cumplimiento de los compromisos fijados en la EAVDS. En el informe correspondiente al año 2006 (IHOBE, 2006) se resumen los avances registrados a junio de 2006. En esa fecha un 81% de los compromisos programáticos se encontraban realizados o en estado avanzado de ejecución, mientras que se consideraba factible o probable el logro del 82% de los compromisos cuantitativos (ver tabla 1).

A nivel foral, cabe señalar la aprobación el pasado año 2005 de la Estrategia de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Bizkaia. La Estrategia de Desarrollo Sostenible de Bizkaia-Programa Bizkaia 21 aboga por una gestión pública que satisfaga las necesidades del presente sin comprometer el futuro de las generaciones venideras. Con la aprobación de este programa, por el que se incorpora el concepto de sostenibilidad a todos los ámbitos de la actuación foral, la Diputación Foral de Bizkaia pone en marcha un plan director que compromete al conjunto de la institución, es decir, a todos y cada uno de sus departamentos. Este plan marco, que recoge 30 líneas estratégicas y 80 objetivos concretos, pretende sentar las bases que permitan orientar el modelo de desarrollo de Bizkaia hacia la sostenibilidad.

Por último, a nivel municipal cabe destacar el desarrollo de los procesos de sostenibilidad local por medio de las denominadas Agendas Locales 21. La Agenda Local 21 se presenta como una herramienta eficaz para la consecución de las metas ambientales globales, a través de actuaciones locales. Es por esto que la adopción y puesta en marcha de Agendas 21 en los municipios vascos se ha definido como un objetivo prioritario de la EAVDS.

La evolución de los procesos de Agenda Local 21 emprendidos por los municipios de la C.A. de Euskadi ha sido espectacular en los últimos 5 años. En el año 1998 eran 16 los municipios vascos que trabajaban en el diseño de su Agenda Local 21, y a febrero de 2006 son más de 200 los municipios vascos en la Agenda Local 21. Concretamente 138 municipi-

Estategiak ere bere kontrol eta jarraipen sistema du, zenbateraino bete den jakin ahal izateko. Alde horretatik, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bi txosten plazaratzen ditu urtean: ingurumen adierazleak eta ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena. Haietako lehenean ingurumen aldagai nagusien bilakaera aztertzen da 22 adierazleren bitartez, eta iraunkortasunari buruzko txostenean GIEEko konpromisoen jarraipena egiten da, zenbateraino bete diren egiaztatze aldera. 2006ko txostenean (IHOBE, 2006) 2006ko ekainera arte egindako aurrerapausoak laburbiltzen dira. Garai horretarako, konpromiso programatikoen %81 beteta edo nahiko aurreratuta zeuden, eta kuantitatiboen %82 egingarri edo eginerraztat jotzen ziren (ikus 1. taula).

Aldundien eraginpeko eremuetan, aipatzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorrerako Estrategia, 2005ean onartua. Garapen Iraunkorrerako Estrategia-Bizkaia 21 Programaren arabera, kudeaketa publikoak oraingo beharrei eutsi behar die, baina hurrengo belaunaldien geroa kolokan jarri gabe. Programa honen bidez, Aldundiak iraunkortasun kontzeptua txertatzen du bere jarduera alor guztietan, eta horregatik, hain zuzen ere, martxan jarri duen plan gidatzaileak Foru Erakundeko sail guztietara zabaltzen du ardura. Esparru plan honetako 30 ildo estrategikoen eta 80 helburu zehatzek abiapuntua izan behar dute, haien bidez Bizkaia ereduak iraunkortasuna eduki dezan jomuga.

Azkenik, udalek ere beren mailako iraunkortasun helburuei heldu diete, Toki Agenda 21 izeneko bitartez. Tokiko Agenda 21 tresna eraginkorra da toki mailako ekintzak helburu orokorragoen lorbide bilakatzeko, eta horregatik GIEEen xede nagusietako bat da euskal udalek berariazko Agenda 21 eduki eta martxan jar dezaten.

Azken 5 urteetan Euskal Autonomia Erkidegoko makina bat udalerrik ekin diote Tokiko Agenda 21i. 1988an Erkidegoko 16 udalerrri ari ziren bere Tokiko Agenda 21 diseinatzen, eta 2006ko otsailean 200etik gora dira. Zehazki, egun 138 udalerrri onartu dute Ekintza Plana, eta zenbait ekimen dituzte martxan; gainontzekoek maila desberdinean bete dute Toki-



pios tienen aprobados sus Planes de Acción y están ejecutando actuaciones; el resto está en distintas fases del diseño de su Agenda Local 21 (elaboración del diagnóstico, redacción de los Planes de Acción, puesta en marcha de los procesos de participación ciudadana, etc.).

Uno de los avances más importantes en el desarrollo de las Agendas Locales en la C.A. de Euskadi se produjo en diciembre de 2002 con la constitución de la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad, UDALSAREA 21. La misión de UDALSAREA 21 consiste en impulsar el desarrollo efectivo de los procesos de Agenda Local 21 y la integración de criterios de sostenibilidad en la gestión municipal. Una de las características más novedosas que incorpora esta Red es que está conformada por un entramado interinstitucional que incluye a aquellos municipios que cuentan con un Plan de Acción Local, derivado del proceso de diseño de la Agenda Local 21, a los Departamentos de Medio Ambiente tanto de las tres Diputaciones como del Gobierno Vasco, la Asociación de Municipios Vascos EUDEL y la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE.

ko Agenda 21 gauzatzeko bidea (diagnostikoa egitea, Ekin-tza Planak taxutzea, herritarrek parte hartzeko planak abiatzea...).

Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Agendak garatzeko prozesuan aurrerapauso handienetako bat 2002ko abenduan eman zen, orduan eratu baitzen Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea UDALSAREA 21, Tokiko Agenda 21en prozesuak bultzatzeko eta udalen kudeaketa-era iraunkortasunerako irizpideez hornitzeko. Sarearen ezaugarri aipagarrienetako bat nabarmentzera, bere osaera azpimarratu behar da, instituzio desberdinak dituelako partaide, besteak beste, Tokiko Agenda 21en prozesuaren ondorioz Tokiko Ekintza Plan bat daukaten udalak, Hiru Aldundietako eta Eusko Jaur-laritzako Ingurumen Sailak, EUDEL Euskal Udalen Elkar-tea eta IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

### 3. EVOLUCIÓN DE LA SITUACIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LA C.A. DE EUSKADI

Tradicionalmente la información ambiental ha sido una de las asignaturas pendientes a todas las escalas geográficas. Hasta la década de los 90, la información existente en materia ambiental estuvo limitada a ciertas variables ambientales y ámbitos geográficos. En el caso de la UE, no fue hasta 1993, con la entrada en vigor de la Directiva 90/313 sobre libertad de acceso a la información en materia de medio ambiente, cuando esta información comenzó a estar enteramente a disposición de la sociedad. Es precisamente a partir de mediados de los 90 cuando la Unión Europea comienza a publicar informes sobre el estado del medio ambiente en Europa.

En el año 1995 la Agencia Europea del Medio Ambiente (AEMA) –principal organismo público europeo dedicado a suministrar información ambiental– publicó el informe *Europe's Environment – The Dobris Assessment* (Stanners y Bourdeau, 1995). Este documento, que recogía por vez primera un conjunto de información detallada en materia ambiental a nivel de europeo (46 Estados), surgió con la vocación de apoyar el desarrollo de estrategias y políticas ambientales a largo plazo, y proporcionar información ambiental al público en general. En 1998 la AEMA publicó el segundo informe de esta serie bajo el título de *Europe's Environment – The Second Assessment* y en 2003 el tercero (*Europe's Environment – The Third Assessment*).

Paralelamente a la publicación de estos informes la AEMA ha ido elaborando una serie de documentos (*Environment in the European Union at the Turn of the Century* en 1999 y en 2005 *The European Environment – State and Outlook 2005*) en los que, además de recogerse la información más relevante en materia ambiental de la UE, se evalúa el potencial que las diversas políticas tienen para contribuir a mejorar el estado del medio ambiente. Asimismo, se realiza un ejercicio de prospectiva analizando en qué medida las tendencias detectadas nos alejan de los objetivos fijados y suponen una seria amenaza para la consecución de verdaderos progresos en materia medioambiental. De esta forma, se pretende plantear los principales retos a futuro en materia ambiental.

Por último, en el año 2000 vio la luz de la mano de la AEMA el primer *Environmental Signals*. Este documento representa el inicio de una nueva etapa en el campo de la información ambiental en la UE. A diferencia de los documentos señalados anteriormente, este informe va a tener un carácter anual. Esto va a constituir una importante mejora, pues, a pesar de no ser tan exhaustivo como los anteriores, va a permitir eliminar en cierta medida los desfases existentes entre los datos ambientales y la realidad que pretenden representar, proporcionando «señales» sobre los progresos en la implementación de las políticas ambientales y en la integración de la variable ambiental en el resto de políticas. De esta forma se va a tratar de favorecer la capacidad de detectar las tendencias existentes y las desviaciones con respecto a los objetivos planteados, facilitándose la adopción de medidas correctoras.

La C.A. de Euskadi no ha permanecido ajena a este proceso de maduración en materia de información ambiental. Así, en 1998 el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco publicó, a través de su sociedad pública IHOBE, el primer *Estado del Medio Ambiente* (EMA). En este documento se realiza un diagnóstico

### 3. EUSKAL AEKO INGURUMEN EGOERA: BILAKAERA

Ingurumenari buruzko informazioa, betidanik, hutsune bat izan da toki guztietan. 90eko hamarraldira arte, gaiaren inguruko informazioa murriztuz samarra izan da, ingurumen aldagai eta eremu geografiko batzuk besterik ez. EBri dagokionez, informazioa ez zen benetan jario gizartearengana 1993 arte, urte hartan hasi baitzen indarrean 90/313 Zuzentaraua, ingurumen informazioa eskuratzeko askatasunari buruzkoa. Europako Batasuna, bada, 90ekoen erdialdetik aurrera hasi zen ingurumen egoerari buruzko txostenak argitaratzen.

1995ean Europako Ingurumen Agentziak (EIA), alorraren gaineko informazioa zabaltzen duen Europako erakunde nagusiak, *Europe's Environment – The Dobris Assessment* izeneko txostena (Stanners eta Bourdeau, 1995) plazaratu zuen. Haren bitartez informazio zehatza eman zen, lehen aldiz, Europako 46 Estatutako ingurumen kontuez, txostena egin zuten asmoa baitzen ingurumenerako estrategiak eta politikak sustatzea eta gaiari buruzko informazioa jendarteratzea. EIAk 1998an eman zuen argitara sail bereko bigarren txostena (*Europe's Environment – The Second Assessment*) eta 2003an hirugarrena (*Europe's Environment – The Third Assessment*).

Txostenok argitaratzearekin batera, EIAk beste dokumentu batzuk egin ditu, bat 1999an (*Environment in the European Union at the Turn of the Century*) eta beste bat 2005ean (*The European Environment – State and Outlook 2005*). Haietan, EBko ingurumenari buruzko informazio esanguratsuena biltzeaz gain, alorreko politikak ere ukitzen ziren, ingurumen egoera zertan hobetu lezaketen aztertze aldera. Hainbat aurreikuspen ere egiten ziren ordurako antzemanak ziren joerez, jakin nahi baitzen –ahal zen neurrian– hasierako helburuetatik urrunduko ote ginen, eta zenbateraino eragoz zeketen joera berri horiek mamizko aurrerapenak egitea.

Azkenik, 2000n EIAk aurreneko *Environmental Signals* zabaldu zuen. Txosten horrekin EBk aro berri bat ireki zuen ingurumenaren gaineko informazioan. Aipatu ditugun besteak ez bezala, urtean behingo txostena izango zen, eta onerako aldaketa izan zen, harrezkero txikiago egingo zelako orduara arteko tarte edo huts bat, zeren datuak argitaratu arte aldatetak gertatzen baitziren eurek islatu omen zuten errealitate hartan. Urteko txostenak, bada, «arrastoak» ematen dizkigu egiten diren aurrerapenez, bai ingurumen politikak gauzatzeko orduan baita ingurumen aldagaia bestelako politikan txertatzerakoan, era horretan errazagoa izango delakoan azaleratzen diren joerak igartzea eta jarritako helburuak betetzen ote diren ohartzea, aldi berean neurri zuzentzaileak iradokiz.

Euskal Autonomia Erkidegora ere iritsi dira ingurumenari buruzko informazioan izandako hobekuntzak. 1998an, hartara, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak lehenbiziko *Ingurumen Egoera* (IA) argitaratu zuen, IHOBE sozietate publikoaren eskutik. Txosten horretan sakon aztertzen da Euskadiko ingurumenaren egoera,

en profundidad de la realidad ambiental vasca en base a una serie de indicadores ambientales. La publicación de este primer EMA coincidió en el tiempo con la aprobación de la Ley 3/98 General de Protección del Medio Ambiente. El segundo EMA (Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, 2001) se elaboró en el año 2001 y sirvió como diagnóstico previo a la elaboración de la EAVDS 2002-2020 y el PMA 2002-2006. El EMA correspondiente al año 2004 (IHOBE, 2005a) es a día de hoy el último de esta serie de documentos. Este informe, el más exhaustivo de lo publicados hasta la fecha, ofrece una visión integrada de los problemas ambientales en relación con las causas que los producen, incluyendo las respuestas surgidas desde las administraciones públicas, los sectores económicos y la sociedad civil. Este documento constituye la base para la elaboración del próximo PMA 2007-2010.

Por otra parte, desde el año 2002 el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco ha venido elaborando una serie de informes anuales de *Indicadores Ambientales* (IHOBE, 2002b, 2003, 2004 y 2005b). La recopilación de estos indicadores obedece a varios objetivos:

1. Aportar un conjunto de información relevante sobre la situación y evolución de las principales variables ambientales.
2. Realizar el seguimiento de las diferentes políticas de sostenibilidad ambiental de la C.A. de Euskadi.
3. Facilitar un conjunto de información que sustente y facilite la toma de decisiones.
4. Comunicar a la ciudadanía el estado del medio ambiente y concienciarla sobre la necesidad de actuar en su favor.
5. Por último, la adopción de metodologías estandarizadas a escala internacional para el cálculo de estos indicadores favorece la posibilidad de establecer comparaciones con otras regiones.

A continuación se presenta un resumen de la evolución de las principales variables ambientales en base a los datos recogidos en los *Indicadores Ambientales 2005* (IHOBE, 2005b) y en el *Estado del Medio Ambiente 2004* (IHOBE, 2005a). Para facilitar la comprensión de esta información se ha procedido a su agrupación en cuatro bloques. Los tres primeros grupos hacen referencia a las principales variables que determinan la evolución del medio ambiente (consumo de recursos naturales, calidad ambiental y contaminación, y biodiversidad y paisaje). El último apartado hace referencia a la gestión del medio ambiente que realizan los diferentes agentes sociales.

### 3.1. Consumo de recursos naturales

Toda actividad humana está basada en flujos constantes de aire, agua, energía y materiales provenientes del medio ambiente. El actual modelo de sociedad tiene su base en la producción y consumo de bienes y servicios; para que estos procesos de producción-consumo puedan llevarse a cabo se hace necesario utilizar una serie de recursos naturales. Sin embargo, la naturaleza impone unos límites en cuanto a la disponibilidad de estos recursos naturales. Es por esto que, en general, en el ámbito del consumo de los recursos naturales, las diferentes políticas a todos los niveles plantean dos objetivos que se consideran esenciales:

alorreko adierazle multzo baten bidez. Lehen IA argitaratze-rekin bat onetsia eman zitzaion 3/98 Lege Orokorrari, Ingurumena Babestekoari. 2001ean bigarren IA agertu zen (Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila, 2001), eta nolabait, aurre-diagnostiko gisako bat izan zen, haren ondoren etorriko ziren-eta GIEE 2002-2020 eta IEP 2002-2006. 2004ko IA (IHOBE, 2005a) txosten horietako azkena da oraingoz; aurrekoak baino zehatzagoa eta ikuspegi osokoa da, ingurumen arazoak beren kausekin lotzen dituelako, eta gainera, administrazio publikoetatik, enpresetatik eta gizartetik bertatik emandako erantzunak jasotzen ditu. Bestalde, hurrengo IAK, 2007-2010koak, txosten hau edukiko du oinarri.

Bestalde, 2002tik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu, Sailak *Ingurumenari buruzko Adierazleak* bildu ditu urteko txostenetan (IHOBE, 2002b, 2003, 2004 eta 2005b), ondoko helburu hauekin:

1. Informazio argigarria ematea ingurumen adierazle nagusiez eta haien bilakaeraz.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren iraunkortasuna sustatzeko egiten diren politikak jarraipena egitea.
3. Erabakiak hartzeko lagungarria den informazioa ematea.
4. Herritarrak ingurumen egoeraren jakitun jartzea eta haren alde jardun beharraz sentiberatzea.
5. Azkenik, mota horretako adierazleak nazioarteko metodologia estandarren arabera kalkulatzeko direnez, errazagoa da beste eskualdeekiko alderaketak egitea.

Jarraian laburbilduta azaltzen da ingurumen aldagai nagusiek izan duten bilakaera, bi txosten hauetako datuetan oinarrituta: *Ingurumenari buruzko Adierazleak 2005* (IHOBE, 2005b) eta *Ingurumen Egoera 2004* (IHOBE, 2005a). Ulerterrazagoa izan dadin, informazioa lau ataletan sailkatu dugu. Lehen hiru multzoetan ingurumen bilakaeraren berri ematen duten aldagai nagusiak ukitzen dira (baliabide naturalen kontsumoa, ingurumenaren kalitatea eta kutsadura, eta bioaniztasuna eta paisaia). Azken atalak hizpide du nola kudeatzen dituzten gizarte eragile desberdinek ingurumen alorreko gaiak.

### 3.1. Baliabide naturalen kontsumoa

Gizakien jarduera guztiek funtsezkoa dute airea, ura, energia eta ingurumenetik datozkien beste baliabide batzuen fluxu etengabea. Gaurko gizarte ereduak oinarri du ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea eta kontsumitzea; ekoizte-kontsumitze prozesu hori eten ez dadin beharrezkoa da baliabide naturalak erabiltzea, baina baliabide horiek mugatuak dira berez, eta horregatik, hain zuzen, alorreko politika guztietan bi helburu jotzen dira ezinbestekotzat baliabide naturalen kontsumoa dela eta:

